

# MIKEL AIZPURU MURUA

## ATZOKO ABERTZALETASUNA GAURKOAREN ERREFERENTZIA?

---

**1**892an argitaratu zuen Sabino Aranak *Bizkaia por su independencia* liburuxka, eta harrezkero 125 urte pasatu dira. Oso sasoi desberdinak bizi izan ditu euskal abertzaletasunak ehun urte luze horietan. Berrezarkuntza garaiko sistema liberal-oligarkikoa, Primo de Riveraren diktadura, Errepublikaren bosturteko laburra, Gerra Zibila, frankismo luzea eta azken berrogei urteetako erregimen demokratiko parlamentarioa. Eragiketa erraza dugu: 125 ken 45 berdin 80. EAJk bere bizialdiaren ia bi heren badaezpada egoeran igaro ditu. Are gehiago, Bizkaiko aldundian 1917-1919 tartean eta 1979tik aurrera zabaldutako garaian izan ezik, ez du gobernu ardurarik izan, zenbait udaletako kudeaketa baino. Hala ere, jakin izan du bere helburuak finkatzen, denboran zehar egokitzen eta beharrezkoak ziren bitartekoak eskuratzen.

Bigarren Errepublika jarri ohi da abertzaletasunaren “urrezko garai” moduan: Euskal Pizkundearen garaia, euskarak eta euskal kulturaren hainbat adierazlek garapen nabarmena izan zuten sasoi; lehendabizikoz ospatu zen Aberri Eguna; 1933an, aurreneko aldiz, EAJ Euskal Herriko lehen alderdia bilakatu zen, nahiz eta Nafarroan oso ahula izan, eta urte horretan bertan Autonomia Estatutua lortzeko ezinbestekoa zen erreferenduma gauzatu zen.

Egoera gehienek dituzte aurrekariak eta abertzaletasunaren kasuan, mende hasierako urteetan finkatu zen Errepublikan nagusitu zen eredua: alderdiaren eta batzokien arteko uztarketa, jarduera politikoa eguneroko bizitzan eta aisialdian txertatzeko ahalegina, gizarteko esparru guztietara (gaztedira, emakumeengana, langileriarengana) heltzeko borondatea, kulturari (hizkuntzari, antzerkiari, abestiei eta hitzaldiei) emandako lehentasuna eta abar. Alderdi-komunitatea deitu izan zaio eredu horri, eta ez zuen EAJk asmatu; Alemaniako sozialdemokraziak garatu zuen eta, neurri batean, eliza kristauek mendeetan garatutako ereduaren kopia laikoa izan zen. Gurean bai PSOEek, baita karlistek ere, eredu horretara jo zuten hazi eta zabaldu ahal izateko. Bilboko Euzko Gaztedija izan zen abertzaleen

## UPV/EHUKO IRAKASLEA

artean aukera hori bultzatzen lehena, eta Engrazio Aranzadik teorizatu zuen 1910eko hamarkadan: abertzaletasunaren lehen zeregina euskal nortasuna berreraikiz euskal gizartea berrosatzea zen. Aranzadik eta orduko jeltzaleek erlijio katolikoarekin eta foruzaletasunarekin lotzen zuen estuki euskal nortasuna. Horren ondorengo eginkizuna izango zen hauteskundeak eta helburu politikoak eskuratzea. *Hermes* aldizkaria egitasmo horren parte izan zen bere garaian.

Jeltzaleen esparruan, eredu horrek berebiziko garrantzia izan zuen eta funtsezkoa izan zen frankismoaren urte gogorretan aurrera egin ahal izateko. 1950eko hamarkadan, gerraosteko estrategia politikoak porrot egin zuenean, jeltzaleak ia-ia oharkabean eta elkarren artean hitzik egin gabe, Errepublikaren garaiko eredura egokitu ziren. Euskarak eta euskal ohituren eta bizimoldeen hainbat adierazlek bizi zuten galbideaz oharturik, bide politiko zuzenak bigarren mailan utzi eta euskal kulturaren bigarren Berpizkunde bat bultzatu zuten 1960ko hamarkadatik aurrera. Ikastolak, txistulari eta dantzari taldeak, musikariak, mendizaleak, antzerkigileak eta beste talde batzuk ditugu horren guztiaren adierazle.

Garaiak, ordea, aldatzen ari ziren eta birsortze hori oso testuinguru desberdinean gauzatu zen. Garaia baldintzatu eta

ezaugarritu zuten lau elementu baino ez ditut aipatuko. Lehenak, frankismoak hain zuzen, esparru guztiak hartzen zituen: askatasuna murrizteaz gain, eztabaidarako eta ideien trukerako giroa oztopatu eta kutsatu egiten zuen. Hala ere, ez diezaiozun erru osoa bota, baina nabarmena da harrezkero bizi izan ditugun eztabaida eta enfrontamendu garrantz askok frankismoak puztutako intolerantzia giroan aurkitu zutela hauspo egokia. Bigarren elementua hain nabaria da, ezen inork ez duela aipatu ere egiten: telebistaren garaia izan zen 1960ko hamarkada. Bigarren Errepublikan zinemaren eragina mugatua zen eta irratia oraindik bere hastapenetan zegoen. Telebista, ordea, oso arin zabaldu zen eta urte gutxiren buruan etxe gehienetan zuen bere txokoa. Ia ezinezkoa da eta izan da komunikabide moderno horren eragiteko ahalmenari aurre egitea.

**BADA FUNTSEZKO ARRAZOI BAT DUELA BERROGEI URTEKO EAJREN ARRAKASTA ULERTZEKO: ERREPUBLICAKO URTEETAN SORTU ETA 1960KO HAMARKADAN METATUTAKO "KAPITAL SINBOLIKOA"**

Aipatu nahi dudun hirugarren elementua euskal gizartearen eraldaketa da. Gerra garaia arte industrializazioaren eragin zuzena Bizkaiko eta Gipuzkoako eremu jakin batzuetara baino ez zen zabaldu eta gauza bera gertatu zen Espainiatik etorritako emigrazioarekin. 1980rako, aldiz, industrializazioa Euskal Herri osora zabaldua zegoen, bai eta harekin batera hedatu zen emigrazioa ere. Are gehiago, hainbat ikerketak azaldu dutenez, euskal biztanleriaren gehiengoa etorkinak edota etorkinen seme-alabak ziren garai hartan. Aldi berean, euskal gizarteko ereduak eta bizimoldeak ugaritu egin ziren, lanbideei,

**EGITASMO BERRIEK  
EZIN DITUZTELA EREDU  
ZAHARRAK KOPIATU, BAINA  
ABERTZALETASUNAK  
GOGOAN IZAN BEHARKO  
LUKE NONDIK ATERA ZUEN  
BERE INDARRA ETA ENERGIA  
SUGARRA PIZTU ETA ITZALI  
GABE EUSTEKO**

pentsakerari eta bizimoduari zegokienez. Horrek, hain zuzen, zuzen-zuzenean eragin zion abertzaletasunari.

Bigarren Errepublikan Euzko Abertzale Ekintza sortu arren, alderdi politiko hori ez zen gai izan EAJren nagusitasuna kolokan jartzeko. Geroago, 1960ko hamarkadan sortu ziren abertzale belaunaldi berrien zati handi batek EAJren estrategia ez ezik, EAJren ideologiaren muina ere baztertu nahi zuen; hori dugu laugarren elementua. Jeltzaleek Jaungoikoa, Lege Zaharra eta gizarte tradizionala defendatzen zuten tokian, ezkerreko abertzaleek erlijioa alde batera utzita eta Foruen ordeztu independentzia eta sozialismoaren adiera desberdinak aldarrikatu zituzten. Gertatutakoa ez da batere harrizketa, garai berean Europako herrialde katoliko gehienetan antzeko prozesuak gertatu ziren eta.

Faktore horiek guztiak kontuan izanik, harrigarria izan zen, batzuentzat gutxienez, EAJk 1977ko hauteskundeetan erakutsitako sendotasuna. Zenbaiten ustez, XIX. mendeko alderdi zaharrak gizarte modernoan tokirik izan ez arren, errealtatea tematsua zen, 1980ko hauteskundeetan Euskal Autonomia Erkidegoko lehen indarra izateaz gain, bere egitasmo politikoaren ardatz nagusiak (Autonomia Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa) errealtate bilakatuta ikusi baitzituen. Ez da erraza garaipen horiek azaltzea, baina garbi dago garrantzi eta jatorri desberdineko elementuak nahastu zirela prozesu

horretan. Esate baterako, ETaren adar desberdinen indarkeriak EAJrantz hurbildu zituen zenbait sektore. Orduko euskal gizartea analista batzuek uste zutena baino konplexuagoa eta aberatsagoa zen eta ez ziren ezagutzen, edota gutxietsi egiten ziren jende askoren nahiak eta borondatea. Hala ere, nire ustez, bada funtsezko arrazoi bat duela berrogei urteko EAJren arrakasta ulertzeko: Errepublikako urteetan sortu eta 1960ko hamarkadan metatutako "kapital sinbolikoa". Frankismoak bizitza luzea izan zuen, baina 1932ko poxpolinek berrogeita hamar urte baino ez zituzten 1977an, 1936ko gudariak hirurogei eta 1960ko ikastolen sortzaileak, hainbat kultura-elkarteren bultzatzaileak eta gizarte-erakunde askotako buruzagiak jeltzaleak ziren.

1979tik aurrera aro berria hasi zen abertzaletasunarentzat, era askotako arrazoiak tarteko. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan EAJ erakundeen buru egin zen eta errealtate hori, lehenago azaldu dugunez, nobedadea izan zen bere ibilbidean. Nagusitasun hori euskal nazioa eraikitzeke erabili zuen, eta horren adibide ditugu autonomiaren ikur ugari. Baina, paradoxikoki, nagusitasun politikoa kultura-hegemoniaren galerarekin, bai abertzaletasunaren baitan, baita euskal gizartea bere osotasunean hartuta, batera garatu zen. Beharbada, EAJk ez zuen nahi izango, eta, ezbairik gabe, ezin izan zuen berreraiki XX. mende hasieran batzokien inguruan ehundutako sarea. Nabarmena da, bide horretan, adibidez, euskarazko kulturaren munduan, sektore jakin eta bakan batzuetan izan ezik, EAJk izandako ahulezia. Egoera horrek, itxuraz, ez zuen kezka handirik sortu jeltzaleen buruzagien artean, ez baita nabaritu ahalegin handirik egoera hori iraultzeko. Izan ere, jeltzaleek ez dute galdu inoiz lehen postua Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, behinik behin. Kudeaketan erakutsitako gaitasuna izan da, batzuen ustez, emaitza horren giltza.

Ezin ukatu EAJren arrakasta, baina lan honen azken aldean haren mugak ere azpimarratu behar direla uste dut. Hiru nabarmenduko ditut. Lehena oso agerikoa da: 1986az geroztik jeltzaleek behin bakarrik

osatu dute gobernua beste alderdirik gabe, eta kasu horretan ere, Iñigo Urkulluren lehen gobernuaren agintaldian, alegia, ezinbestekoa izan zuen kanpoko laguntza bere aurrekontuak onartu ahal izateko.

Bigarrena ere nahiko nabaria da. 1980. urtean, Eusko Legebiltzarra osatzeko lehen hauteskundeak egin zirenean jeltzaleek 350.000 boto lortu zituzten, erroldaren % 38; 2016. urtean, aldiz, 398.000 boto lortu zituzten, baina erroldatuen kopurua handiagoa zenez, boto-emaleen % 37,6 eskuratu zuen EAJk. Azken portzentaje horrek erroldaren % 22a baino ez du ordezkatzeko. Gorabehera ugari egon dira tartean eta egia da inguru guztian ikusten ari garen “betiko” alderdien arazoak kontuan hartuta, EAJren egonkortasuna goraiatzeko modukoa dela, baina autonomia-aroak ia berrogei urte bete dituenean, prozesu hori zuzendu duen alderdiak boto-emale berririk ez erakartzea, ez dut uste harro egoteko motiborik denik.

Hirugarren mugak lotura zuzena dauka aurreko biek. Alderdi abertzale baten helburua Euskal Herriaren burujabetasuna baldin bada, burujabetasun hori era desberdinetan ulertu baldin badaiteke ere, duela berrogei urte sortutako tresnak (Estatutua eta Jauriaritza) nahiko ote dira helburu horretan aurrera egiteko? Ez ditut ondo ezagutzen Katalunian eta Eskozian gertatzen ari direnak eta ez dut uste halabeharrez eredu izan behar dutenik hemen, baina bai izan behar dutela ezinbesteko erreferentzia. Uste dut Eskozian azkeneko urteetako Tony Blairren alderdi laboristaren aurkako giroak eta SNPak erakundearen kudeaketan egindako lana izan direla giltzarria bertako legebiltzarrean abertzaleek erabateko gehiengoa lortzeko, baina horrekin batera batetik, gizarte zibilaren artikulazio sendoa gauzatu da eta bestetik, abertzaleen hausnarketa sakona, abertzaletasunaren sen soziala indartzeko. Faktore horien gainera badago funtsezkoa den beste bat: eskoziarren gehienek beren burua eskoziartzat izatea. Bestalde, Katalunian ere oso nabarmena da sentimendu hori. Aitzitik, Euskal Herrian

autonomiak lortu du, neurri batean, biztanle gehienak Euskal Autonomia Erkidegoko kide sentitzea. Ez luke horrek nahiko izan beharko alderdi abertzale batentzat; gainera, sentsibilizatze lan hori ez dagokio Jauriaritzari, alderdi abertzale eta erakunde sozialei baino.

Horrek sortzen duen galdera begi bistakoa da: nola lortu gizarte mobilizazio hori erabateko eraldatze prozesua bizi duen herrialde batean. ETAren balizko amaierak giro berria ekarri behar zuen eta abertzaleen ahaleginei arnasa berria eman, baina ez dirudi hori gertatzen ari denik. Azken hamarkadan, euskal gizartea zaharragoa izateaz gain, era askotakoagoa ere bada; mundu guztiko etorkinak jaso ditu eta horiek euskal gizartean nola eta zertan integratu behar diren erabakitzeke eztabaida bizi-bizi dago; era berean, zer nolako gizartea sortzen eta garatzen ari garen ere eztabaidagai da. Beste alde batetik, Internetek, gizarte-aldaketek eta ezagutzaren gizartearen garapenak indibidualizatzeko prozesua bultzatu dute. Giro horretan, norbanakoen berezko nortasuna gizartearen oinarri bilakatzen ari denean, nekez planteatu daiteke nortasun kolektiboaren aldeko aldarrikapen arrakastatsurik. Subiranotasunaren inguruan gertatzen ari diren aldaketek antzeko zerbait iradokitzen digute. Ezin, beraz, duela ehun urteko ereduak bere horretan mantendu, baina alde batera utzi ere ezin ditu egin, abertzaletasunak bere izateari eutsiko badio. Horren guztiaren aurrean, nortasun nazionalaren definizio berria bilatzea izan liteke irtenbidea; irekia izan dadila, eta, era berean, mendeetan euskal izaera markatu duten elementuak mantenduko dituen.

XXI. mendeko abertzaletasunak erronka zaila dauka, azkeneko hamarkadetakoa ibilbideak muga nabarmenak ditu eta. Egia da egitasmo berriek ezin dituztela eredu zaharrak kopia, baina abertzaletasunak gogoan izan beharko luke nondik atera zuen bere indarra eta energia sugarra piztu eta itzali gabe eusteko, gero eta euskaldun gehiago bere proposamenetara hurbildu ahal izateko eta, era horretan, bere helburu politikoak gauzatu ahal izateko.